

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

B1 maila (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua)

AZTERKETA IDATZIA

A eredua

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

LANTOKIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Nola egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dituzu ondo.

BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DENEAN

Eusko Jaurlaritzak, 2004ko ekainean, txakurrak edukitzeko baldintzak arautzen dituen dekretua onartu zuen, eta Nafarroako Gobernuak antzeko beste dekretu bat, hilabete beranduago. Harrezkero, ia desagertu egin dira kaleetatik Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier eta American Staffordshire Terrier arrazetako animaliak. Horiek dira, hain zuzen ere, txakur arriskutsuen zerrenda beltzean ageri diren lehenengo hirurak. Adituek diotenez, hala ere, arriskua ez dago animaliangan, horien nagusiengan baizik.

“Garai batean modan zegoen Rottweiler moduko txakurrak edukitzea, baina gaur ia desagertu egin dira kaleetatik. Ez dira ikusten, ez bada txakur-hezitzaileen eskuetan” esan digu Jose Tribiño albaitariak. Izan ere, Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren dekretuek baldintza zorrotzak finkatu zituzten zerrenda beltzeko txakurren jabe izan nahi dutenentzat. Esate baterako, txakurra kalera ateratzen duten guztietan aldean eraman behar dituzte animalien agiriak; beti lotuta eraman behar dituzte, eta, nahi eta nahi ez, erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dute.

Ez hori bakarrik. Arriskutsuen zerrendan ageri diren 8 arrazetako txakurren baten jabe izan nahi duenak, adin nagusikoa izateaz gain, animalia gobernatzeko adinako gaitasun fisikoa eta egokimen psikologikoa baduela frogatu beharko du azterketa psikologikoa gaindituz.

“Gidatzeko baimena lortzeko egin behar denaren antzekoa da”, dio Tribiñok. Arazoa betikoa da bere ustez, “arauak jabe arduratsuek bakarrik betetzen dituzte; axolagabeek ez”. Duen esperientziak erakutsi dio arazoak sortzen dituzten txakurren jabeak izan ohi direla txakurra lotu gabe eta txertoa eman edo txipa jarri gabe eramaten dituztenak. “Gainera, inoiz harrapatzen badituzte, txakurra kenduko diete, gehienez ere, eta bost axola haiei, beste txakur bat lortuko dute eta”, kritikatu du.

Albaitariak haserre daude Administrazioak auzia arautzeko erabili duen prozedurarekin. Aipatutako zerrenda beltza ere zentzugabea dela iruditzen zaio Tribiñori, irizpide zientifikorik gabe egina dela: “Animaliak ez dira erasotzaileagoak arrazaren arabera, baizik eta txakurra bera, dena delako arrazoiagatik, erasotzailea delako”.

Iritzi berekoak dira Atea animalien aldeko elkartekoak. Ez dira arraza bereko txakur guztiak zaku berean sartzearen aldekoak. “Horri, pertsonekin egiten denean, arrazakeria edo sexismoa deitzen zaio”, dio Ateako kide batek. Arazoa bere ustez, pertsonengan dago. Rottweiler txakurrak jarri ditu adibide: “Txakur hauek gai dira inolako arazorik gabe pertsonekin bizitzeko. Arazoa da handiak eta indartsuak direnez, eraso egiten irakasten dietela”.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan txakur guztiak, sortzetik, tatuatu egin behar dira, eta egin ditzaketen kalteak babestuko dituen aseguru hartu behar du jabeak. Gainera, txakurrak kalera ateratzen dituztenean, muturrekoa eta uhala jarri behar dizkiete.

Hango legeak bi txakur-mota bereizten ditu. Lehenengo mailan Pit Bull arrazako txakurra dago. Txakur-mota desberdinen arteko gurutzatzearen emaitza dira eta erasorako joera naturala dute. Frantziako Gobernuak horiek desagerrarazteko erabakia hartu zuen 1999an. Jabeak, geroztik, behartuta daude txakurrak antzutzera, eta arau zorrotzak bete behar dituzte. Bigarren mailan Bull Terrier eta antzeko txakur-arrazak daude. Horiek ere arauak bete behar dituzte, baina ez daude antzutzeko agindupean.

I. Bilbao / A. Renteria
Berria, 2005-02-03
Egokitua

1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GEZURRA?

1. Tribiñoren ustez, arauak betetzen ez dituen jabeari txakurra ken diezaiokete, baina, jabeak nahi izanez gero, beste bat eskura dezake.
2. Txakur-hezitzaileek Rottweiler txakurrak nahiago dituzte beste arrazetakoak baino.
3. Dakitenen iritziz, arriskua txakur arriskutsuen jabeengan dago, animaliangan baino gehiago.
4. Iparraldeko probintzietan txakur guztiak lotuta atera behar dira beti.
5. Nafarroako Gobernuaren dekretua Eusko Jaurlaritzarena baino lehenagokoa da.
6. Arraza bereko txakur guztiak berdintzat hartzea "arrazakeria" da, Atea elkarteko kide baten iritziz.
7. Tribiñok dioenez, txakur arriskutsuen zerrenda osatzeko, irizpide zientifiko huts-hutsak erabili dira.
8. Rottweiler arrazako txakurrek arazo larriak sortzen dituzte, pertsonekin biziz gero.
9. Frantziako Gobernuak Pit Bull txakurrak desagertzea nahi du.
10. Zerrenda beltzeko txakur-mota batzuk nekez ikus daitezke gure kaleetan.
11. Gidatzeko baimena ateratzea baino zailagoa da txakur arriskutsu batez jabetzea.
12. Txakur arriskutsuaren jabeak adin nagusikoa izan behar du eta proba psikologikoa gaindituta eduki behar du.

2. IDAZMENA

Egitekoa: TESTU LABURRA IDAZTEA

Nola egin:

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Duela gutxi arte ospitaleratuta egon zara. Gaur gutun bat jaso duzu handik. Eskaini zizuten zerbitzuari buruz zer iritzi duzun jakin nahi dute.

Ospitaleko arreta, oro har, ezin hobea iruditu zaizu, baina gelen neurriaz, zarataz eta bisitari-kopuruaz baduzu zer esana. Azaldu zure iritzia.

Oharra: Testua 11. orrialdean idatzi behar duzu. Zirriborroa egiteko, 10. orrialdea erabil dezakezu, baina 11. orrialdekoa bakarrik zuzenduko da.

ORRIALDE HONETAN IDATZITAKOA EZ DA ZUZENDUKO

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredua

Irakurgaia: "BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DENEAN"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

A eredua

| | | | |
|---|---|----|---|
| 1 | E | 7 | G |
| 2 | G | 8 | G |
| 3 | E | 9 | E |
| 4 | E | 10 | E |
| 5 | G | 11 | G |
| 6 | E | 12 | E |

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

B1 maila (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua)

AZTERKETA IDATZIA

B eredua

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

LANTOKIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Nola egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dituzu ondo.

BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DENEAN

Eusko Jaurlaritzak, 2004ko ekainean, txakurrak edukitzeko baldintzak arautzen dituen dekretua onartu zuen, eta Nafarroako Gobernuak antzeko beste dekretu bat, hilabete beranduago. Harrezkero, ia desagertu egin dira kaleetatik Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier eta American Staffordshire Terrier arrazetako animaliak. Horiek dira, hain zuzen ere, txakur arriskutsuen zerrenda beltzean ageri diren lehenengo hirurak. Adituek diotenez, hala ere, arriskua ez dago animaliangan, horien nagusiengan baizik.

“Garai batean modan zegoen Rottweiler moduko txakurrak edukitzea, baina gaur ia desagertu egin dira kaleetatik. Ez dira ikusten, ez bada txakur-hezitzaileen eskuetan” esan digu Jose Tribiño albaitariak. Izan ere, Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren dekretuek baldintza zorrotzak finkatu zituzten zerrenda beltzeko txakurren jabe izan nahi dutenentzat. Esate baterako, txakurra kalera ateratzen duten guztietan aldean eraman behar dituzte animalien agiriak; beti lotuta eraman behar dituzte, eta, nahi eta nahi ez, erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dute.

Ez hori bakarrik. Arriskutsuen zerrendan ageri diren 8 arrazetako txakurren baten jabe izan nahi duenak, adin nagusikoa izateaz gain, animalia gobernatzeko adinako gaitasun fisikoa eta egokimen psikologikoa baduela frogatu beharko du azterketa psikologikoa gaindituz.

“Gidatzeko baimena lortzeko egin behar denaren antzekoa da”, dio Tribiñok. Arazoa betikoa da bere ustez, “arauak jabe arduratsuek bakarrik betetzen dituzte; axolagabeek ez”. Duen esperientziak erakutsi dio arazoak sortzen dituzten txakurren jabeak izan ohi direla txakurra lotu gabe eta txertoa eman edo txipa jarri gabe eramaten dituztenak. “Gainera, inoiz harrapatzen badituzte, txakurra kenduko diete, gehienez ere, eta bost axola haiei, beste txakur bat lortuko dute eta”, kritikatu du.

Albaitariak haserre daude Administrazioak auzia arautzeko erabili duen prozedurarekin. Aipatutako zerrenda beltza ere zentzugabea dela iruditzen zaio Tribiñori, irizpide zientifikorik gabe egina dela: “Animaliak ez dira erasotzaileagoak arrazaren arabera, baizik eta txakurra bera, dena delako arrazoiagatik, erasotzailea delako”.

Iritzi berekoak dira Atea animalien aldeko elkartekoak. Ez dira arraza bereko txakur guztiak zaku berean sartzearen aldekoak. “Horri, pertsonekin egiten denean, arrazakeria edo sexismoa deitzen zaio”, dio Ateako kide batek. Arazoa bere ustez, pertsonengan dago. Rottweiler txakurrak jarri ditu adibide: “Txakur hauek gai dira inolako arazorik gabe pertsonekin bizitzeko. Arazoa da handiak eta indartsuak direnez, eraso egiten irakasten dietela”.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan txakur guztiak, sortzetik, tatuatu egin behar dira, eta egin ditzaketen kalteak babestuko dituen aseguru hartu behar du jabeak. Gainera, txakurrak kalera ateratzen dituztenean, muturrekoa eta uhala jarri behar dizkiete.

Hango legeak bi txakur-mota bereizten ditu. Lehenengo mailan Pit Bull arrazako txakurra dago. Txakur-mota desberdinen arteko gurutzatzearen emaitza dira eta erasorako joera naturala dute. Frantziako Gobernuak horiek desagerrarazteko erabakia hartu zuen 1999an. Jabeak, geroztik, behartuta daude txakurrak antzutzera, eta arau zorrotzak bete behar dituzte. Bigarren mailan Bull Terrier eta antzeko txakur-arrazak daude. Horiek ere arauak bete behar dituzte, baina ez daude antzutzeko agindupean.

I. Bilbao / A. Renteria
Berria, 2005-02-03
Egokitua

1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GEZURRA?

1. Frantziako Gobernuak Pit Bull txakurrak desagertzea nahi du.
2. Arraza bereko txakur guztiak berdintzat hartzea "arrazakeria" da, Atea elkarteko kide baten iritziz.
3. Tribiñok dioenez, txakur arriskutsuen zerrenda osatzeko, irizpide zientifiko huts-hutsak erabili dira.
4. Tribiñoren ustez, arauak betetzen ez dituen jabeari txakurra ken diezaioke, baina, jabeak nahi izanez gero, beste bat eskura dezake.
5. Zerrenda beltzeko txakur-mota batzuk nekez ikus daitezke gure kaleetan.
6. Gidatzeko baimena ateratzea baino zailagoa da txakur arriskutsu batez jabetzea.
7. Iparraldeko probintzietan txakur guztiak lotuta atera behar dira beti.
8. Nafarroako Gobernuaren dekretua Eusko Jaurlaritzarena baino lehenagokoa da.
9. Txakur arriskutsuaren jabeak adin nagusikoa izan behar du eta proba psikologikoa gaindituta eduki behar du.
10. Rottweiler arrazako txakurrek arazo larriak sortzen dituzte, pertsonekin biziz gero.
11. Txakur-hezitzaileek Rottweiler txakurrak nahiago dituzte beste arrazetakoak baino.
12. Dakitenen iritziz, arriskua txakur arriskutsuen jabeengan dago, animaliangan baino gehiago.

2. IDAZMENA

Egitekoa: TESTU LABURRA IDAZTEA

Nola egin:

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Duela gutxi arte ospitaleratuta egon zara. Gaur gutun bat jaso duzu handik. Eskaini zizuten zerbitzuari buruz zer iritzi duzun jakin nahi dute.

Ospitaleko arreta, oro har, ezin hobea iruditu zaizu, baina gelen neurriaz, zarataz eta bisitari-kopuruaz baduzu zer esana. Azaldu zure iritzia.

Oharra: Testua 11. orrialdean idatzi behar duzu. Zirriborroa egiteko, 10. orrialdea erabil dezakezu, baina 11. orrialdekoa bakarrik zuzenduko da.



ORRIALDE HONETAN IDATZITAKOA EZ DA ZUZENDUKO

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

1.2. ZUZENKETA-ORRIA — B eredua

Irakurgaia: "BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DENEAN"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

B eredua

| | | | |
|---|---|----|---|
| 1 | E | 7 | E |
| 2 | E | 8 | G |
| 3 | G | 9 | E |
| 4 | E | 10 | G |
| 5 | E | 11 | G |
| 6 | G | 12 | E |